

Hitzaurrea

Solasaldiak liburuaren (*Conversaciones*, Madrid, 2012) edizio kritiko-historikoaren hitzaurrean Mons. Javier Echevarriak idatzi zuen: “1960ko hamarkada zenbait gertaera garrantzitsuen gertaleku izan zen munduaren eta Elizaren historiaren barruan”. Zehazki, 1968ko gertaera batzuk inflexio puntu bat bihurtzen dute data hau historia garaikidean. Mundu katolikoa irakiten zegoen 1965ko abenduan, Kontzilio Vatikanoko II.a amaitu ondoren. Maila zibilean, *Maiatza frantse-
sa* izenez ezagutzen dugun gertaera, urte hartan suertatu ziren gauza guztien adierazle da. Protesta mugimendu bat izan zen, ikasleen eta langileen giroan makina bat partaide bildu zuena. Denbora gutxi pasa ondoren, mendebaldeko herrialde-tara zabaldu zen. Labur esanez, asaldaketa guz-

ti haren ondorioa, ideologia eta giza fede guztien krisia eta entzute galtzea izan zela esan daiteke, geroxeago bizi-nihilismo bat sortuko zuena. Garai berean, eta epe laburrean, kritika sakoneko beste zenbait korrante sortu ziren ere: hippie mugimendua, sexu iraultza, feminismo erradikala, bakezaletasuna, ekologismoa. Errebisionismo ideologiko horren barruan, *Pragako udaberriari* azkena eman zion Txekoslovakiaren inbasioa, kolpe izugarri bat izan zen gizartearen ikuspegi marxistarentzat. Txinako *Kultura Iraultzak* maoismoa zabaldu zuen mendebaldean. Eta azkenik, 1968ko udan, *Humanae Vitae* Entziklika argitaratu zen, kontestazioa leherrarazi zuena Teologia Moral katolikoaren zati eder batean.

Borborka zegoen mundu horretan, 1968ko irailean argitaratu zen *Conversaciones con Monseñor Escrivá de Balaguer* liburu gisa. Urte berean italieraz, ingelesez eta portugesez azaldu zen ere. Ez zen berria, ordea, liburuaren edukia, aurretik argitaratuak zeuden zenbait idatzi biltzen zituen baizik: Zazpi egunkari edo aldizkariei emandako elkarrizketak jasotzen ditu liburuak: lehenengoa *Le Figaro*-k 1966ko maiatzaren 16an

argitaratu zuena, eta azkena *L'Osservatore della Domenica*-k 1968ko maiatza eta ekainaren hiru igandetan zehar. Liburuaren azkeneko atala Nafarroako Unibertsitateko *Campusean*, 1967ko urriaren 8an, egindako homilia da.

Urte haiek Opus Deiren hedaketa munduan zehar eta erakundearen bermatzea ezagutu zuten. Mons. Echevarriak honela dio: “Kristau bizitzaren edozein behatzailearentzat argi zegoen transzendentzia apostoliko handiko erakundea zela. Ez da ba harritzekoa komunikabide sozialei deigarri gertatu eta nazioarteko prentsaren organo batzuk San Josemaría Escrivá de Balaguerengana jo bazuten topo egite eta elkarrizketak eskatuz”. Liburuan zehar, edizio kritiko-historikoaren autoreek idazten duten bezala, Opus Deiren Fundatzaileak azaltzen ditu “poliki eta zabal Opus Deiren espirituaren eta ekintzen ezaugarri nagusiak”. Galderen haritik, eliza eta kulturari dagokien zenbait gairi bere iritzia ematen du ere.

Solasaldiak liburuaren argitalpena sustatzearekin, Nafarroako Unibertsitateak bere Fundatzailearen obra hau euskal hiztunei eskaintzea bilatzen du. Ezin ahaztu da San Josemariak bul-

tzatu zuela Euskal Hizkuntza eta Kultur Katedra-
ren sorrera, Antonio Fontanek 1963an martxan
jarri zuena. Fontanek –zortzi urte aurretik, bes-
terik ez, sortua zen Filosofia eta Letren Fakulta-
tearen Dekanoa zenak– honela agertzen zion Jose
Migel Barandiarani Katedraren helburua: “Kate-
dra hori, irakaskuntza tribuna bat ez ezik, iker-
keta gune bat izatea nahi dugu euskal kultura-
ren munduan planteatutako linguistika, filologia,
etnologia... etab. gaietan”. Fontanek ongi zekien
Nafarroan kokatutako unibertsitate batek euska-
ra eta euskal alorreko gaiak landu behar zituela
irakaskuntzan eta ikerketan, momentu hartan es-
kaerarik ez bazegoen ere. 1963an sortu zen Ka-
tedra, eta 16 urtetan zehar Aita Barandiaran izan
zen irakasle eta ikerlanen sustatzaile, han sortu
zuen “Etniker” taldearen bidez. Gero, Ana Etxai-
de filologoak, liburu honen itzultzaileak, bere
gain hartu zuen Katedra eta bere lan eta bultza-
dari esker iraun du orain arte. Berak dioen beza-
la, “Don Jose Migelek 74 urte beteta zituen Ka-
tedran irakasten hasi zenean, eta kontuan eduki
behar da Ataunen bizi zela, eta askotan astero-
ko joan-etorri hori ez zitzaiola eroso gertatu-

ko. Baina 90 urte bete zituen arte eten gabe iraun zuen”.

Obra honek berez duen garrantziaz gain, badaude Nafarroako Unibertsitatearekin zer ikusirik dauzkaten hiru arrazoi erakunde honek haren argitalpena sustatu nahi izateko. Lehenengoa, liburuan azaltzen den lehen elkarrizketari dagokio, *Naturaltasuna eta aniztasuna Jainko herriarengan*. Elkarrizketa hau *Palabra* aldizkarian azaldu zen 1967ko urrian, eta Pedro Rodríguez irakasleak, garai hartan aldizkariaren zuzendaria zenak, egina da. Opus Dei buruzko zenbait galderaz gain, Elizaren bizitzarekin, oro har harturik, zer ikusirik duten errealitate eta gertakizun batzuk azpimarratzen dira. Nafarroako Unibertsitatearekiko erlazioa batez ere autorearen aldetik dator, geroxeago, eraiki berria zen Teologia Fakultateko klaustroaren kide izan baitzen, eta geroago Dekanoa izatera heldu.

Bigarren arrazoia, *Unibertsitatea gaur egungo gizartearen zerbitzura* titulua daraman elkarrizketari dagokio, *Gaceta Universitarian* argitaratua 1967ko urriaren 5ean, Nafarroako Unibertsitatearen Lagunen II. Biltzarra ospatzen

zen aldi berean. Autorea, Andres Garrigó, Kazetaritza ikasle izan zen Nafarroako Unibertsitatean. Urte batzuk geroago haxe idatzi zuen lan honi buruz: “68ko maiatzaren iraultzarako hila-bete gutxi falta ziren, urte bete ozta-ozta: gu pitin bat protestaren alde geunden. Irakaskuntza askatasunaren alde, Unibertsitatearen askatasunaren alde, aniztasunaren alde borrokatzen genuen. Berak gurekin hitz egitea onartu zuen, eta horrek zerbait esan nahi zuen jada, askatasunaren alde apustu egitea zen”.

Zergatik zioen Garrigok askatasunaren alde apustu egitea izan zela? Gogoratu behar da *Gaceta Universitaria* urte haietan susmopean zegoen komunikabide bat zela ez baitzen sindikatu frankistena, eta zentsura, espedienteak, multak eta jazarpenak jasaten zituen. Lau aldiz espediente egin zioten dagoeneko. Eta Garrigo gogoratzen zen galdetu ziola Escrivari: “Denetik galdetu dezakegu?” Eta erantzuna: “Bai, nahi duzun guztia”, “Baita pil-pilean dauden gauza batzuk ere bai, politikari dagozkienak etab.?” “Bai”. Eta hala jarraitzen du: “Denari eman zion erantzuna, itxaroten genuena baino gehiago”.

Elkarrizketa hau Iruñean, unibertsitateko ekitaldi baten barruan egin zenez, “*Gaceta Universitariak* –edizio kritiko-historikoaren elkarrizketa honen sarreran irakurtzen da– Opus Deiren Fundatzaileari Nafarroako Unibertsitateko Kantziler Nagusi bezala hitz egin arazi nahi dio. Elkarrizketa argitaratuko zuen aldizkariaren zenbakia Nafarroako Unibertsitateko Lagunen Biltzarra ospatu zen egunetan azaldu behar zen”. Galdera bereziak zuzen-zuzenak ziren: Zein izan ziren Nafarroako Unibertsitatea fundatzean argitu zintuzten printzipioak? Ekonomia baliabide handiko pertsonentzat bakarrik da, edo nola finantzatzen da? Azkenik, zerk eragin dio Opus Deiri unibertsitate erakundeak sortzera herrialde hain desberdinetan? Elkarrizketa jasotzen zuen *Gaceta Universitariaren* ale hura eskuragai egon zen Nafarroako Unibertsitatearen Lagunen II. Biltzarraren ekitaldiak iraun zuten bitartean.

Argitaratzearen azken arrazoia liburua ixten duen testua da. Beste literatura genero batean kokatzen da: Ez da elkarrizketa, homilia bat baizik, *Mundua irrikaz maitatu* izenburu duena. Testu hau 1967ko urriaren 8an unibertsitateko

Campusean ospatu zen Meza Santurako prestatua izan zen, Nafarroako Unibertsitatearen Lagunen II. Biltzarraren barruan egin ziren ekitaldien artean.

16

Galde egin daiteke zergatik sartu zen testu hau hemen, Opus Deiren Fundatzailearen homilia liburuen barruan sartu beharrean. Badaude bi arrazoi gutxienez. Lehena da haren homilien lehenengo liburua, *Kristo, bidez doala*, sei urte geroago azaldu zela, 1973an. Eta bigarrena testuen ezberdintasunean aurkitzen dugu. *Kristo, bidez doala*-k San Josemariaren predikuak jasotzen ditu, eta fedearen egia nagusiak azaltzen urte liturgikoaren harian. *Mundua irrikaz maitatu* homiliak, ordea, Opus Deiren espiritua oro har azaldu nahi du, eta asmo horregatik liburu honetan sartzen diren elkarrizketen edukitik hurbilago dago.

Edizio kritiko-historikoan homilia honen sarrean irakurtzen den bezala “homilia honek testu eder bat eskaintzen digu, non mintzaera zuzen eta xume baten bidez kristau fedearen egia nagusien iruzkina egiten den, haien ahalmen espiritualala eta bizitzan eragiteko duten gaitasuna azpimarratuz”.

Espero dugu, edizio kritiko-historikoaren egileek dioten bezala, obra honetara hurbiltzen direnek “liburu honen edukian sakondu ahal izango dutela, adimenean nahiz bizitzan”.

CONSTANTINO ÁNCHEL

*Josemaría Escrivá Dokumentazio eta
Azterketa Zentroaren Ikertzaile*